



## Gazteriaren Kontseiluak Euskadi mailan egindako gazteen parte-hartzerako lehenengo gida aurkeztu du

- “Gazteen parte-hartzerako gida”-k talde formalak eta ez formalak martxan jartzeko informazio guztia ematen du eta ezaugarri hauekin egiten den lehenengoa da
- Argitalpena EGKren webgunean eskuragarri dago, interaktiboa da eta Gazteriaren Kontseiluak eguneratua izateko konpromisoa hartzen du. Formatu fisikoan ere zabalduko da

*Bilbo, 2014ko uztailaren 3an.* **“Gazteen parte-hartzerako gida”**. Hauxe da Gazteriaren Kontseiluak aurkeztzen duen lan berriaren izena, **gazteen parte-hartzea bultzatzeko gakoekin** egin den **gida, oso sakona** baina dinamikoa eta erraza irakurtzen dena. Hau egiteko talde mota ezberdinak hartu dira kontuan: formalak (elkarteetatik alderdi politikoetara) eta ez formalak (asanbladak, erregistratu gabeko mugimenduak edo plataformak). Argitalpen honetan, **ezaugarri hauekin Euskadi mailan eta gazteei zuzenduta egiten den lehena**, gazteek egiten dituzten ohiko galderei erantzuten zaie: “zergatik parte-hartu eta non?, zer gertatzen da nire talde erregistratzen ez badut? nola sor dezaket elkarte, kooperatiba, kirol kluba, konpartsa edo asanblada bat? nola kudeatu talde formal edo talde ez formal bat? zer agiri behar ditut? zein da kostua? nora joan behar naiz?”

### Zergatik gida hau?

Gazteriaren Kontseiluan 1986an sortu zen Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez. Ia 30 urte pasa dira eta gaur egun EGK-k esparru guztietako (politika, hezkuntza, lan eskubideak, astialdia, kultura) **60 gazte elkarte baino gehiago elkartzen ditu** eta euskal gazteriarekin duten eragileekin lan egiten du. Harreman honi esker, parte-hartzeko edo talde bat martxan jartzeko gazteek dituzten **kezkak zehaztu ditugu, orain argituta gelditzen diren zalantzak.**

### Gidaren ezaugarriak

Dagoeneko, **gida eskuragarri dago EGKren webgunean**, “elkarteak” atalaren barnean hain zuzen ere. Hamabi orrialdetan, bai gazteleraz bai euskaraz, **talde bakoitza osatzeko pausoak ematen dira**, alde onak eta ez hain onak, konposizioa, derrigorrezko organoak, beharrezko dokumentazioa eta erregistro nagusienak. **Taldea osatuta dagoenean eta kudeaketa eta garapenaren inguruko informazioa ere ematen da:** beste erregistro eta erroldak, kudeaketa fiskala eta ekonomikoa eta antolakuntza eta komunikazioa ona izateko aholkuak, besteen artean. Azkenik, esparru honetan lan egiten duten erakunde guztien esteka interesgarriak biltzen dira.



**Gida oso interaktiboa egiten saiatu gara** eta, horregatik, iturri originaletara eramaten duten esteka ugari daude: administrazioetara eta beste eragiletara. Gazteriaren Kontseiluak **informazio hau eguneratua izateko konpromisoa hartzen du** eta ez dabilen esteka, aldaketa legala edo gainbegiratua izan behar den beste moldaketaren bata aurkitzen bada, formulario bat jarri da erabiltzaileen eskura. Gida gure webgunea eta sare sozialen bidez ezagutzera emango da eta **paperezko bertsioa ere argitaratuko da**, horrela, laster, EGK-ko egoitza, gure elkarte, gazte informazio bulego eta administrazioen bidez zabalduko da.

### **Parte-hartze esparruaren beste lan ildoak**

Orain argitaratzen den gidak **EGKren parte-hartze sailean** orain arte egin diren beste lanekin lotura dauka. Esparru hau 2013an martxan jarri zen eta Kontseiluan lantzen diren beste sailekin batera lan egiten du, besteen artean, hezkuntza, enplegua eta etxebizitza, bakea eta bizikidetzeta edo komunikazioa.

Parte-hartze atalaren barruan, orain dela gutxi zabaldu zen [eta esteka honetan ikus daitekeen](#) “(Gazteon) parte-hartzearen papera” bideoarekin edo “**Gazteak eta parte-hartzea**” ikerketarekin non euskal gazteriaren gizarte inplikazioa eragotzi dezaketen trabak eta horiek gainditzeko proposamenak landu ziren.

Ikerketa honen informazio gehiago [EGKren webgunean](#) eskuragarri dago eta [argitalpen osoa](#) ere ikusi eta jaitsi daiteke.

**informazio+**  
688 67 59 32  
Iñaki Goikoetxea Arrufat  
**EGK-ko komunikazioa**